

ITURRI BILA

Joxe Manuel Odriozola

"Nacionalismo y lengua", Benjamín Tejerina Montaña, 363 orri., CIS-Siglo XXI, Madrid, 1992.

Benjamín Tejerinak liburu sendoa bezain mamitsua eskaini digu euskal soziolinguistikaren alorrean. Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Zientzien Fakultatean irakasle denez, soziologiaren ikuspegitik aztertu eta jorratu ditu hainbat eta hainbat atal eta puntu. Behar genuen, zalantzarik gabe, ikuspuntu honetatik landutako ikerketarik, gure arteko joera, izan ere, aukeran makurtuegia baitago psikolinguistikaren eta antzeko disziplinetara. Lan hau Doktore-iradutza Tesiaren birmoldaketa da, CISEk 1990ean saritu zuenean oinarritua alegia.

Alfonso Pérez-Agoteren hitzaurre orobat trinko batez jantzia datorren lan honek, bere aurkibideko atal nagusien

sailkapenean, honako hauek ditu letra larriz idatziak: "Las representaciones sociales de las realidades colectivas"; "Los procesos histórico y social del euskara"; "El código nacionalista y la lengua durante el franquismo"; "La situación objetiva de la lengua"; "La dimensión subjetiva de la lengua: imágenes y valoraciones sociales"; "Imágenes de los mecanismos de reproducción del euskara"; "Conclusiones".

Hitzaurreko lehen esalditik hasiko nintzateke gustora, hizkuntzaren definizio egoki bat egiten duelako. Ez du zerikusirik hizkuntzalaritzaren eremuan aurki ditzakegun betiko leloekin: "La lengua es uno de los elementos centrales en el proceso de construcción social. Como medio o instrumento de comunicación está presente en la mayor parte de las situaciones de interacción social que tienen como resultado la pro-

ducción de la sociedad". Ez du lekuri uzten, ikuspegi honek, hizkuntza tresna hutsaltzat irudikatzen duen definizio arras ezagunarentzat. Hemen, hizkuntza, gizarte-zutabe bat, instantzia bat gehiago da, gainerako instantziekin uztartuz eta osatuz.

Beste puntu bat, txit azpimarragarria, hizkuntz komunitatearen inguruan nagusitzen ari den kontzeptu murrizt, arruntari dagokio. Hizkuntz arazoak, halako kontzeptu ideologiko hutsaren arabera, hizkuntz taldeetara mugatzen baitira, hizkuntzatasunak hiltunetik at beste oinarritzko dimentsiorik ez balu bezala. Horregatik datorkigu une egokian honako pasarte hau: "Lo que quiero señalar es que en determinados casos donde existen varias lenguas en una misma comunidad, el concepto de comunidad definido en términos lingüísticos puede estar ocultando una dimensión de cierta importancia para explicar los procesos de cambio y las transformaciones que tienen lugar en el desarrollo de una lengua o variedad lingüística".

Benjamín Tejerinaren tesia laburbilduz eman beharko bagenu, ideia-ardatzon inguruan formulatuko genuke hura. Euskara historian barrena atzeraka etorri da bere lur-eremuak eta gizarteko erabilguneak galduz, egoera minorizatuan murgildu arte. Baina frankismoan bere funtzio komunikatiboaren galera areagotu egin zen. Galera larri honen ondorioz, ordean, eta paradoxikoki, egoeraren gorriak kontzientzia hartzea dakar berarekin. Euskararen balorapen sinbolikoa areagotzetik sortuko da beraz, haren aldeko mugimendua, eta balorapen sinbolikoaren eraginak duen ondorioetako bat euskararen funtzio komunikatiboa gehitzea izango da. Eta nola izan da posible hau? Non dago

fenomeno hori esplikatzen duen gakoa? Bere ustez korapilo hori ezin da askatu euskarak historian barrena euskal nazio-identitatearekin izan dituen harremanen mataza hariz-hari xehetu arte. Asmo horrekin ekin zion lanari, eta gure irakurketa zoliek frogatu beharko dute egunen batean, helburua zein neurritan bereganatu duen.

Eta zein izan da bere ikerkuntzaren oinarritzko prozedura? Zeintzu dira prozesu horren ezaugarri nagusiak? Bi xede zituen lanari ekin zionean, eta xede horien araberrako ikerbideaz jardun du bere lan mardul hau moldatzen: "En la medida en que nuestro interés se orienta tanto hacia la dimensión objetiva como subjetiva de la lengua hemos utilizado dos tipos de datos. Para la realización del análisis de la situación objetiva de la lengua hemos tomado en consideración los datos estadísticos existentes que nos ha sido posible encontrar o reelaborar. Para la recogida de información que hace referencia a la dimensión subjetiva de la lengua hemos utilizado las reuniones de grupo, y en los casos en los que no ha sido posible formar un grupo con las suficientes garantías que el trabajo científico requiere, se ha recurrido a las entrevistas personales".

"Ondorioak" izeneko kapituluari, oraintxe ikutu dugun puntuaren harian, zehaztapen batzuk egingo ditu ikerlan honetan zer norena den eta zer nolakoa den jakitun egon gaitezen. Gaizki ulertzerik ez egoteko, interpretazio okerrertarako biderik ez uzteko, informatzaileen diskurtso soziala batetik eta soziologozientifikoren diskurtsoa bestetik, mugari argiz bereizi behar direla jakinarazten digu. Ez baitira bata eta bestea teoriko bereko diskurtsoak, bakoi-tzairen iturria eta taxuera bestelakoak dire-

nez.

Benjamín Tejerina bere harrobiko jakintzaz hasten zaigu ondorioen sail honetan euskararen gizarte-historia luzea zirriborratzen. Eta erromanizazioaren garaian bertan idoroko ditu lehenengo aldiz atzerakadaren aztarnak: "Durante la época de la romanización comienzan a sentarse las bases de lo que serán los primeros factores sociales de su retroceso". Duela mila bat urte kokatuko digu bigarren kinkaldia. Hain zuzen ere orduan hasi baitzen hirigintza eta merkataritzaren hastapenezko haziak ereiten: "Con la aparición de la ciudad comercial, la fundación de villas y la progresiva urbanización se configura uno de los factores que durante siglos dejará sentir sus efectos sobre la lengua vasca". Hirugarren kinka larria XVIII. medearen bigarren zatian ezarriko du hainbat eta hainbat faktore izendatuz: "La acentuación del factor urbano (...), la ambivalencia de la Iglesia; el papel de las migraciones tanto internas como hacia el exterior; la represión y la marginación del sistema educativo; el desprestigio entre personas acomodadas y con estudios; y la marginación y olvido de las instituciones y organismos públicos hacia la lengua del país". Eta azkenik, frankismoaren aroan sartu baino lehen, XIX. mendeko kinka erdiragarriak gogorarazten dizkigu hiru izen handien ildoan. Industrializazioak, hirigintzak eta etorkinen fenomenoak, aurretikako forusistemaren gainbeherari erantsirik, atzekoz-aurrera eta hankaz-gora jarriko ditu errejimen zaharreko euskarri euskaldunak. Eraldaketa bortitz horretan, hurrenez hurren, hiru erraldoi etorriko dira, euskal nazionalismoaren eta pizkundearen zuzia txandakatuz: "La crisis, vivida traumáticamente, supone la toma de conciencia y la reformulación

de todos estos elementos en esta nueva coyuntura, tres de cuyos exponentes más significativos serán A. Campión, S. Arana y P. Ariztimuño".

Frankismoarekin batera errepresioa, eta errepresioaren ondorioz, euskararen transmisioegune tradizional batzuk desagertuz joango dira, hark bere debeku-zigorren poderioz espazio publiko oro ukatu dionez. Inoiz baino etxezuloagoan barneratuko da euskararen erabilmuga. Baina erabilmuga hau bera ere zartatzen hasiko da kanpotikako indar-eraginaren kariaz: "La transmisión intergeneracional de la lengua en seno familiar es el único espacio al que la represión directa no tiene posibilidad de acceder. Sin embargo, esta transmisión se ve interrumpida como consecuencia de la interiorización de la represión en el mundo familiar. En algunos casos, el miedo personal de los padres a la represión o a que ésta alcance a los hijos supone la quiebra del mecanismo de reproducción de la lengua que opera en dicho ámbito".

Aldian aldiko abagaduneak, ordea, erresistentziaren aitzindariak ere sortzen ditu, eta frankismoaren epealdiak ere izango du loraldi hori. Loraldi honen oinarri teoriko-ideologikoak, Benjamen hitzei bagagozkie. "Aitzol"i zor zaizkio neurri handi batean: "Esta concepción de la lengua, política y simbólica a un tiempo, tendrá una importancia capital en las posteriores formulaciones del nacionalismo vasco". Baina zein neurritan, zinez eta benetan, bereganatzen ditu nazionalismo radikal berriak Aitzolen printzipioak? Jakina, arrazaren inguruko diskurtsoak iadanik ez du balioko euskal gizartea bere osotasunean egituratzeko. Eta beste zenbait elementu ere ideologia modernoaren bahetik pasa beharko dira hobe beha-

rez. Ez da gure asmoa igaroaldi horri dagozkion xehetasunetan sakon-tzea, orde. Beste alderdi eztabaidagarri hau aldatu nahi baikenuen hona, batzuen onarpenerako eta besteen zalantzarako. 1950. hamarraldiko hondarreen gaude, gerora abertzaletasun radikalaren eredu izango den mugimenduaren sorrunean. Eta mugimendu honek nola uztartu du euskararen auzia dimentsio politikoarekin? Hona Tejerinaren jukua: "Esta función participativa de la lengua asumida por la reformulación del nacionalismo vasco que lleva a cabo ETA, tiene como uno de sus objetivos políticos prioritarios la recuperación de la lengua, por lo que terminará impulsando el proceso de recuperación de la función comunicativa de la lengua. Sin embargo, en el discurso de ETA, la lengua queda supeditada (y con ello su recuperación) a la consecución del objetivo político del autogobierno del pueblo vasco. El deseo de la recuperación del euskara y de la identidad vasca se supedita a la consecución previa de la independencia política de Euskadi. En este sentido, la lengua adquiere una dimensión política, de lucha política en oposición con el franquismo, pero se supedita a la consecución de los objetivos políticos".

Ikusmira ditzagun, liburuaren aipamen hau amaitu baino lehen, euskararen inguruan dauden irudiak: gizarte-diskurtsoaren deiturapean aurkeztuko ditu Tejerinak sail honetako ondorioak.

Euskararen munduan diharduten profesionalen artean definizio ezkorak nagusitzen dira euskararen zoriari buruz. Areago, atzeraka goaz aurreraka joan orde: "Para aquéllos la situación actual es peor incluso que la que tuvo durante el franquismo, principalmente por la disminución y el debilitamiento

del grado de conciencia de la situación de la lengua". Beste muturrean, euskal eremuetako euskaldunak ageri zaizkigu: "Paradójicamente, la imagen más positiva es la que se manifiesta entre los jóvenes vascoparlantes de zonas de dominio euskaldun, y entre los mayores y adultos castellanoparlantes de las mismas zonas".

Gizarte diskurtsoen ildotik aipatzekoa den beste auzi bat zera da: gizarte-kla-seek euskararekiko duten jokamoldea. Eta horien artean burgesiak betiko bidetik segitzen duela dirudi: "Una de las lagunas del euskara es que no ha llegado a determinadas categorías sociales. El discurso de los actores sociales señala la burguesía como el estrato social que parece mantenerse al margen, cuando no en contra, de la lengua. Para los profesionales del mundo de la lengua la ausencia de utilización de la lengua es esta categoría social es el elemento fundamental para explicar, históricamente, la pérdida de la función comunicativa de la lengua".

Beste puntu azpimarragarri bat elebitasun sozialari dagokio. Izan ere, guk uste, bete-betea asmatzen baitu autoreak auzigai honen baitan dagoen barrunbea arakatzean. Hona zer dioten zorioneko elebitasun/elebakartasun ideia-jarrerari buruz: "En mi opinión, parece que el discurso sobre el bilingüismo responde más a una racionalización realizada por los agentes políticos, en la medida que intentan encauzar un conflicto social sobre la lengua, que a una definición de los actores sociales sobre la situación lingüística a partir de su localización en la estructura social. En realidad, el bilingüismo parece ser un objetivo que no es asumido, como la finalidad política, sin reticencias por la comunidad euskaldun y por amplios

sectores del mundo del nacionalismo". Argi dezagun, bidenabar, bere informazio-iturrien harrobia mundu nazionalista hori izan dela, bere lanaren xedeekin bat zetorrenez ikerlana zentzu horretan burutzea.

Eta azkenik, esan, euskararen aurre-rabidea, orohar, ukaezina dela delako gizarte-diskurtso horren ikuspegitik. Egunetik egunera gizarte-prestigio handiagoa omen dauka. Bere irudiak asko irabazi omen du gizarte-sektore urbanoetan eta kultura landuaren barrutian. Orobat aitortu behar omen da eskualde euskaldunetako hizkuntz-irizien balorapenei buruz. Baina, guztia-ekin ere, balorapen sinbolikoaren kointunturan gaude oraindik, nonbait egotekotan. Eta garai hau gainditzeko behar adineko indar-kemenik ez bada

biltzen, erne geroarekin: "Sin embargo, el peligro de asumir el valor simbólico de la lengua es que 'sólo se acepte su valor simbólico' y no su realidad, que tenga una gran valoración simbólica (valoración de la función simbólica de la lengua) pero que no se valore la función comunicativa, su utilización o su aprendizaje como vehículo de comunicación".

Erne zehaztapen honekin, ezen, oso oker ez bagaude, egungo hizkuntz joera soziolinguistikoen norabideak ez baitu batere garbi seinalatzen bihar-etziko euskararen funtzio komunikatiboa sendo oinarritzen ari denik. Hain justu, alderantzizkoa pentsatzeko indikadore gehiago dagoela dirudi.

Joxe Manuel Odriozola
Euskal Herrian Euskarazko kidea